

XXI. mendea, landatar kulturaren agortze-aroa

Marc Badalekin solasean



Ula I. Busturia

Arkitekto doktorea eta EHUko irakaslea

Jasotze data: 2018-12-02

Onartze data: 2019-01-24

Marc Badal 2016. urtean sortutako Kanpoko Bulegoko partaidea da. Espazio horretatik Endemis(t)moak proiektua garatu dute Luzaide-Arnegi bailaran, *Mundo clausurado; monocultivo y artificialización* fanzinea auto-argitaratu dute eta kultura garaikidea eta landa-gaiak gurutzatzen diren hainbat aktibitateetan parte hartu dute (Torralba de Ribotako Saltamontes Festibala, Tabakalera Endemis(t) moak proiektuaren aurkezpena, Nekazal Kultura Eskoletara ekimenaren hazi lokalen erakusketa...).

Marc Badal Bartzelonan jaio zen. Azken 20 urteetan hainbat landa-bizilekutatik igaro ostean —Kataluniako Pirinioak, Tarragonako Prades mendietan—, egun Nafarroako Luzaide herririka bere bizileku egin du. Mendietatik egindako bizilekuen ibilbidea, manifestu politiko bat bezala irakur daiteke, landa-eremua ezagutu, ulertu eta pentsatzea baita haren bizitzako ardatza. Bere ahotik entzun diot inoiz, bere burua neobaserritar gisa aurkezten. Marc-en lanaren ekintza-esparruak oparoak dira: baserritarren jakintza eta agroekologia aitzakia hartuta, hamaika artikulu eta libururen idazle eta hizlari izan da. *Vidas a la intemperie* (Pepitas de calabaza eta Cambalache argitaletxeen koedizioan, 2017) saiakerak harrera ezin hobe izan du, oihartzun handiarekin gurean eta gure mugetatik at. Donostiako Cristina Enea Ingurumen Zentroan «Haziera. Hazien artxiboa» proiektuaren sortzaile eta sustatzailea da, euskal hazien gaineko ikerketa, bilaketa, erabilera eta zabalpena bultzatzen duen proiektua. Bertatik agroekologiako kultura hedatzeko ekintzak antolatzen ditu. Hazien jakintza, eta oro har landa-eremuaren errealitatea, hezkuntza-zentroetan lantzeko zenbait proiektutako partaidea da.

«Lehen sektorea bizirik mantentzeko beharraz adostasun politiko zabala dago ezker eta eskuineko alderdietan. Desadostasuna, helburua praktikara eramateko estrategietan dago». Marc Badal

Azken urteetan gure gizartean nekazaritza biologikoa modan jarri da, bio-zigiluko produktuekin hornitzen diren supermerkatuen kopuruari begiratzerik besterik ez dago. Produktu osasuntsuen aldeko interesa barazki eta fruituen produkzio-prozesuetan pestizida eta kutsadura kimikoenganako arreta eta ardurak sortu du. Instagram-en agertzen diren janari argazkietan, joera identifikagarria eta nabarmena da: eko-aguakatea gosaltzen da eta eko-kuia krema ziprindutako sesamozko haziekin bazkaltzen da. Osasun individualaren zainketan eragin du moda honek, gutxiago, berriz, ingurumenarekiko kezkan. Lurralde-ikuspegi ekologiko baten alde sortzen ez den moda bada ere, Marc-ek dio ongietorria eman behar diogula, agroekologiak interes handia piztu duelako Euskal Herrian eta nekazari gazteak ari direlako gaia ikasten eta praktikara eramaten. Esaterako, hainbat eskolako janaria inguruko baserritarren produkzioarekin loturak egin dira.

Baina agroekologia elikadura osasuntsu bat eramateaz baino haratago doa, lurralde-ideia bat —landarekiko kultura bat, lurraldearen ezagutza bereizi bat— eta ekonomia-eredu bat —gertuko kontsumitzaileak, lurraren balioan pentsatzen duen ekoizpen-prozedura ekonomiaren hazkuntzaren ginetik jartzea— baititu atzetik. Elikadura-burujabetza lurraldean txertatzeko aukeren inguruan galdetuta, Marc-ek dio erosoago sentitzen dela «agroekologia» hitza erabiltzen. Agroekologia Latinoamerikako nekazarien ideietan oinarritzen dela kontatu dit; nekazaritzaren produkzio eta kontsumitzaileen arteko bestelako harreman bat sortzeaz



Irdiaren egilea - Mikel Remak

ari delako, ikuspegi ekonomiko, biologiko, sozial eta kulturala aintzat hartzearekin batera. Lurra lantzeko nekazaritza tradizionalaren balioetan oinarritzen da: lurraldeari lotutako unitate familiarak eramaten duena, bertako haziekin eta jakintzarekin laborantza egiten denean. Lehen sektorea lurraldetasunarekin estuki lotua dago, lurraldearen identitatearekin hain zuzen ere. Agroekologiak nekazaritza-politiken aldaketa integrala sustatu nahi du, erdigunean Herria, kontsumitzaileak, lurraldetasuna aldarrikatzen duena eta, beraz, landa-eremuko bizitza-eredua eta balio-sistemak aldarrikatzen ditu. Landaz hitz egitea, gure historiak hitz egitea da, ingurune naturalarekin harremanetan egoteko bide batez. Kultura landatar hau ahitzen ari garela aipatzen du Marc-ek bere hitzaldietan; hiritarraren ikuspegiarekin landaren errealitatea eta balioa ulertzeko zailtasunak ditugulako.

«Euskal identitatea bertako eta kalitatezko produktuekin lotzeko landarekiko sentsibilitate bat pizten du, baina gerturatzea erromantikoegia da. Nekazaritza eta abeltzaintzaren lurralde-lanak gizartearen balioztatze sozial, ekonomiko eta kultural handiago eskatzen du». Marc Badal

Marc-en iritziz, lehen sektorearen gainean erakundeek duten ikuspegia eusko labelaren ezarketan agerian gelditzen da. Zigiluak ez du monolandaketa ekiditen eta ez da, kasu askotan, kalitatezko produkturik ekoizten —tomatearen kasuan, adibidez—. Dudarik gabe, landa-politika horrek produktu freskoak lortzen ditu eta bertako komertzializaziora begira egindako produkzioa da. Euskal label zigilupean ekoiztirikoa Almerian eta Murtzian egiten diren politikek urrutiko dagoen arren, euskal produkzioa ez da lurraldearekin bat etortzen, nekazaritza industrialak baita, salbuespenak salbuespen. Nekazaritzako lana ezin da enpresa-hazkuntzaren begiradarekin abiatu, merkaturatzen sartzen bada, ekoizpen-produkzioa

igotzera behartuko duelako, eta orduan agroekologikoa izateari utziko dio.

«Botere kulturala hirietan dagoen bitartean zaila izango da egiturazko landa-eraldaketa bat gertatzea, nekazaritza- eta elikadura-politikak, oraindik ere, hirietatik eta hiritarraren pentsamoldetik ekiten direlako». Marc Badal

Marc-ek eskaintzen dituen hitzaldi edo formakuntza-saioretan, hiritarrak landaren gain jaurtitzen duen begirada nostalgikoa agerian uzten saiatzen da. Hiritarra asteburuetan «landara» joaten da, bertako produktoren bat erosi edo mendi-paseoaz disfrutatzen. Hiritarrak, bere begirada erromantikoak itsuturik, landaren utzikeria irakurtzeko edo monolaborantzaren paisaia sinplifikatua irakurtzeko gaitasun falta izan ohi du. Harriduraz kontatzen du Marc-ek nola hiritarrak paisaia berderantz begiratzean industriaguneak ezabatzen dituen bere bistatik eta gune berdean zentratzen den, maitale liluratuaren tankeran.

«Gipuzkoan lehen sektorearen indarra oso ahulduko dago. Atentzioa ematen dit, Katalunian Maresmen produkzio ekologiko eta tradizionala hainbat produktore aurki daitezkeelako, eta Gipuzkoako herrialdeetan oso baserriak gutxi daude landan ogibidea dutenak. Herri bat bertako biztanleek landarekiko duten jakintza eta kulturagatik definitzen baldin bada, Gipuzkoan herri gutxi daudela esan daiteke». Marc Badal

Hiriaren eta landaren arteko dikotomia, banaketa eta ezberdintasuna ameskeria dela defendatzen du Marc-ek. Haren argudioaren arabera, gaur egun ez da batere arteko bestearen arteko banaketarik existitzen. Bien arteko muga eraikitzea nahi hiritar bat da, «beste» izendatzeko modu bat, bigarren maila batean eta botere-harreman bat ezartzeko estrategiarekin. Euskal lurraldeko landa-eremua hiritarturik dago, kultura hiritarrak landaren bizimodu eta pentsatzeko eredua kolonizatu baitu.

«Harrigarria da komunikabideetan transgeniko eta bioteknologiaren berriei egiten zaien propaganda, munduko elikaduraren arazoari aurre egiteko munduaren salbatzaile gisa aurkezteko beta ematen dietelarik». Marc Badal

Munduko elikaduraren arazoaren gainean, biztanleriaren dieta-ereduan kokatzen du eztabaida Marc-ek. Datuen zale ez dela dio, baina beste ikertzaileen txostenetan oinarrituz ematen du, barazki, zereal, tuberkulu eta lekaleekin soilik elikatuko bagina, lurrak nahikoa gaitasuna omen duela munduko biztanleria osoa elikatzeko. Betiko hazien kontrako enpresek —komunikabideen laguntzaz— zabaldu duten ideia da, asko errepikatzen den gezurra egia bilakatzen delako teoriari jarraituz, bioteknologiak oso elikagai onak ekoitz ditzakeela eta etorkizuna super-elikagai horietan dagoela. Hiriak salbatuko gaitu, ez landa-eremuak.

«Iparraldean lehen sektorearen osasuna Euskal Autonomia Erkidegokoarenarekin konparatuz, hobeto dagoela esateko 4 arrazoi nagusi daude: diru-laguntzen banaketa hobea da, gizarteak bertako produktua eta ekoizlearen lana izugarri baloratzen du, ekoizleen arteko saretze eta antolaketa oso ona da —praktika kooperatiboak daude— eta araudia landa-eremuko aktibitateen beharrak asetzerara bideratua dago edo ez da EAEn bezain trabakorra —bestelako gabeziak ere dituen arren». Marc Badal

Iparraldeko egoera Hego Euskal Herrikoa baino hobea dela esan badaiteke ere, Marc ez da mitifikazio eta garaipen zale. Ekoizle kopurua handia izanik ere, Iparralden belaunaldien ordezkapenaren arazoa ez dago erabat gainditua —Frantziako beste lurraldeekin konparatuz datu onak dituen arren— eta lehen sektoreko langileen buru-hilketa tasa altuak lehen sektorearen egiturazko arazo ekonomikoaren erakusle da. Hortaz nekazaritza eta abeltzaintza agroekologikoak bidea egina du, baina lanbidearen gatazkak ez daude, oraindik ere, zeharo ebartzita.

«Urduñaren kasua agroekologiarako apustua egin duen lurralde bakarrenetarikoa da, elikadura- eta nekazaritza-estrategia lurralde-ikuspegiari txertatu duena». Marc Badal

Lurralde-antolakuntzan agroekologiako ideiak txertatzeko bidez galdetuta, Marc-ek hainbat eredu irudikatu dizkit. Alde batetik, Milan eta Munich hiriek hartu duten hiri-antolakuntza. Hiri horietako «hinterland»-a nekazaritzako ekoizpen-lurrak dira, ortu periurbanoak deitzen direnak —hiri horiek ereduaren aitzindari izan dira eta gero beste askok jarraitu diete—. Landatartutako hirien zona horiek eskolen espazioak ere badira. New York-eko Victory Gardens garapen komunitarioko proiektua ere aipagarria da, ekoizpen komunala, supermerkatu-kooperatibak eta zirkuitu laburreko kontsumo eta ekoizpenak bultzatzen dituztelako. Udal-lurralde ereduez galdetuta, Marc-ek Urduñarantz bideratzen nau, bertan oso ongi landu dutelako lehen sektorearen berreskurapena, Ekoizpen deritzon zerbitzu bat martxan jarritz. Landa-ekonomia suspertzeko laguntza-zerbitzua da, bere eragiteko irizpideak agroekologian oinarritzen dituena. Lurraldetasuna erein, landa-kulturaren bitartez. Horrela laburbildu daiteke Marc-en lana.

===